

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES  
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES  
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,  
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,  
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Foru Polizia merkantzien garraioan aritzen diren ibilgailuen pisua kontrolatzeko kanpaina egiten ari da

*Kanpaina Foru Erkidegoko bide nagusietan garatzen da Sustapen Ministerioak eskatuta.*

Miércoles, 05 de octubre de 2011

Trafiko eta Bide Segurtasuneko atalari dagozkion Foru Poliziako hainbat agente, Guardia Zibileko Trafiko Taldearekin koordinatuta, batez ere merkantzien garraioan aritzen diren ibilgailuen pisua kontrolatzeko kanpaina egiten ari dira urriaren 6ra arte, osteguna..

Ekintza hau Sustapen Ministerioak eskatuta jarri da martxan, eta helburu nagusia da merkantzien garraioan aritzen diren ibilgailuetan gehiegizko pisuarekin lotutako arau-haustek kontrolatu eta ondoren salatzea. Izan ere, halakoek arriskuan jartzen dute bide-segurtasuna eta, aldi berean, bidegabeko lehia da garraioaren sektorean.

Kanpaina urriaren 6ra arte egingo da, Iruñeko eta Tuterako polizia-etxeetako goizeko, arratsaldeko eta gaueko txanketan, eta Foru Erkidegoan garraiolariak erabiltzen dituzten bide nagusietan.



Merkantzien garraiorako ibilgailu baten pisu-kontrola.